

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

Geroztik



UXUE APAOLAZA LARREA

Urte bat eta zazpi hilabete pasa dira 2022ko otsailaren 28tik. Ikasturtearen erdialdea pasata, gabonak ere bai, beroki, jertse eta barruko kamiseta, zailtasunak izango zenituen garbi jantzita joatea, garbigailuen maiztasuna, arropa zintzilikatu, jaso (plantxatu ez), plegatu eta jasotzea uztartzeko. Hotza? Prozesionaria ilararen bat.

Maitemindu zara geroztik? Errutina goxoan bizi zara? Baduzu laztantzeko txakur bat? Laztantzen zaituen nor-bait? Laztandu zaituzte azken urte eta erdian?

Askotariko eguraldiak izan ditugu. Hotz egin du, epel, bero. Kexatu zara hotzaz, epelaz, beroaz. Euria ari duelako, egiten ez duelako.

Erabaki duzu ezin duzula aurtengoa bezalako beste uda bat pasa, belaunetik gorako galtza motzik gabe. Bitan baino gehiagotan pentsatu duzu "jo, ez daukat belaunetik gorako galtza motzik", eta erabaki duzu erostea, datorren urtea galtza motzekin hasteko?

Senideren bat gaixotu zaizu agian, baina dena ondo joan da, asmatu duzulako ondoan egoten. Seme-alabei ere gauzak gertatu zaizkie, baldin badituzu, eta erabakiak hartuko zenituen beraien hobe beharrez. Beharbada, oporretara joan zarete elkarrekin.

Liburu batzuk irakurri dituzu, akaso, baten bat idatzi ere bai; edo ikerketa proiektu bat hasi duzu; edo lana utzi duzu; edo RGIa eskatu duzu eta eman dizute. Lagun bat egin duzu, eta ez dakizu, baina bizi osorako da.

Hori guztia, gehiago (edo gutxiago) egin duzu. Pablo Gonzalezek ez du egin. Pablo Gonzalez bizitzatik atera dute. Gizon zuri bat. Eta ahal dute, probarik gabe. Ikasturtea hasi duzu, kezka eta beldurrez zamatuta, ilusioz ere bai: Pablo Gonzalezek ez. ●

BASQUE SPE CULINARY CENTER



Hezkuntza

"Borroka luze eta gogor baten ostean", garun-paralisia eta %87ko desgaitasun motorra duen Usurbilgo ikasleak jardunaldi osoko laguntzailea lortu du ikasturte honetarako. Joan den ikasturtean, laguntzailea jardunaldi erdira jarri zioten (ordura arte jardunaldi osora zuen), eta ezinezkoa zitzaion aurrera egitea.

Lurrikara

Marokon azken hamarkadetan izandako lurrikararik handienak gutxienez 2.100 hildako eragin ditu (irailaren 11n astekari hau ixteko unean). Irailaren 8an, Richter eskalan 6,9 graduko lurrikarak astindu zuen Maroko, eta ordutik larrialdi egoera bizitzen ari dira herritarrak. OMEren esanetan 300.000 lagun kaltetu ditu. Emakume bat hilda aurkitu dute.

Heriotza

Barakaldoko kutxazain automatiko batean. Ertzaintzaren arabera, gorpuak ez zuen indarkeria zantzurik. 42 urteko bilbotarra zen, baina maiz egoten zen Barakaldon eta ezaguna zen herrian. Uztailean etxerik gabeko emakumeentzako aterpetxea itxi zuten, Udalaren murrizketen ondorioz.